



Hondarribiko

Esp.: 2019PRES0001

## **2020KO EKITALDIAREN AURREKONTUARI LOTUTAKO TXOSTEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA**

Laura Busca Fernández, 32/2018 Foru Dekretuan –abenduarien 27koan, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeetan barruko kontrolaren erregimen juridikoa arautzeari buruzkoan, ondoko **LEGEZKO FINANTZA KONTROLERAKO TXOSTENA** igorri du.

### **1. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA**

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa
- Herri Administrazioen Kontratu Legeari Buruzko Testu Bategina.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako tokiko erakundeetan aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-iraunkortasunerako kontrol kontu-hartzailearen eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeetan barruko kontrolaren erregimen juridikoa arautzeari buruzkoa

### **2. OINARRI JURIDIKOAK**

#### **Lehena.- Txostena egiteko beharra**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6.3.e) artikuluan xedatuta datorrenez, “*Aurrekontu orokorrean 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako agiriak ez ezik jarraiko hauek ere egon behar dira: e) **Ekonomia-finantzazko txostena**; bertan sarreren eta aurreikusitako kreditu-eragiketen ebaluaziorako erabilitako oinarriak azaldu behar dira, eskatuko diren betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko kredituak aski direla frogatu behar da, hau da, aurrekontua orekatuta dagoela. Txostenean, gainera, udalak konpromiso-kredituak finantzatzeko nahikoa baliabide dituen ere aztertu behar da, eta aztertu ere aparteko atal batean”.*

Udaleko Aurrekontuen sarrera eta gastuen egitura Gipuzkoako Tokiko Erakundeetako aurrekontu-egitura arautzen duen legedira egokituta dago.



Hondarribiko  
Udala

### **Bigarrena.- Aurrekontuaren Edukia**

Hondarribiko Udalaren 2020ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra honako Aurrekontuez osatuta dago:

Udalaren beraren Aurrekontua.  
Hondarribia Lantzen SA sozietatearen Aurrekontua.  
Arma Plaza Fundazioaren Aurrekontua.

Jarraian aztertuta datoz Hondarribiko Udalaren sarrera eta gastuak.

### **Hirugarrena. - Diru-sarrerak**

2018ko ekitaldiko aurrekontuen likidazio-txostenetik ateratako datuen arabera, badirudi Sarrerren Egoerako 1., 2. eta 3. Kapituluetatik Onartutako Eskubideen arabera, diru-sarrerak 11.166.972,32 eurokoak izan zirela eta haien diru-bilketa likidoa 9.201.198,47 eurokoa izan dela. Nire kargu dauden kontabilitate-datuei erreparatuta, 2019an exekutatu, ziren sarrerak, 1., 2. eta 3. Kapituluetatik Onartutako Eskubideei dagokienez, 9.368.821,74 eurokoak izan ziren. 2019ko ekitaldirako Aurrekontuetan Sarrerren Egoerako 1., 2. eta 3. Kapituluetatik Onartutako Eskubideetarako 9.050.230 euro aurreikusi ziren.

2020 ekitaldirako aurreikusitako dirusarrerak 9.075.575 euro dira.

4. Kapitulan aurreikusi diren transferentzia arruntengatik diru-sarrerak %5,79 igotzea espero da aurreko ekitaldiarekiko. Kapitulu horretan, Udal Finantziatorako Foru Funtsetik 12.231.034,00 euroko transferentzia jasotzea aurreikusi da.

Ondare-sarreretarako aurrekontuan txertatu den zenbatekoa 2019 ekitaldirako aurreikusitako kopuru bera da.

Inbertsio errealak besterentzeagatik dagokion diru-sarreretan, 400.000,00 euroko da – hirigintza aprobetxamenduei buruzkoak-.

7. Kapitulan Kapitalaren Transferentziagatik 6.000 euroko dirusarrera aurreikusten da liburategirako dirulaguntza kontzeptuan.

Eta, amaitzeko, Sarrerren 8. Kapitulan 2019rako aurrekontuaren zenbateko berbera mantendu da.



Hondarribiko  
Udala

## **Laugarrena.- Gastuak**

### **I.- Langile-gastuak.**

Lehenengo kapituluan 7.436.460,68 euroko zenbatekoa jaso da. 2020 ekitaldirako pertsonal gastuei dagokienez, esan behar da Estatuko Idazkaritzaren funtzio publikoaren 2018ko martxoaren 22ko Ebazpenean –enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Gobernu-Sindikatuaren arteko II Akordioa argitaratzen denean- ondokoa dagoela jasota:

*“2020 urtea*

*Gehikuntza finkoa %2koa izango da.*

*Gehikuntza aldagarria izango da:*

*%2,5eko edo hortik gorako gehikuntzarako %1 gehigarria izango da, hau da %3ko gehikuntza guztira”.*

Hondarribiko Udalaren 2020 urterako aurrekontuko pertsonalaren gastuan –Pertsonal Departamentuak bidalitakoan- sartuta dago %3ko gehikuntza osoaren aurreikuspena. Gogoratu aurreikuspen hori gauzatzeko beharrezkoa izango dela aipatutako soldata igoera dagokion lege testuan sartzea. Bestela, ezin izango da soldata gehikuntzarik egin.

Langileen zerrenda erantsi behar da aurrekontuan.

### **II. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak**

Bigarren kapituluan 10.180.609,36 euroko zenbatekoa jaso da eta %0,76 murriztu dira 2019 ekitaldiko hasierako kredituekin konparatuz. Hori gertatzen da murriztu egin delako bide publikoak kontserbatzeko eta seinaleztatzeko zenbatekoa,

### **III. Finantza-gastuak eta maileguen amortizazioak**

Hondarribiko Udalak ez du mailegu-eragiketarik kontratatuta, eta, gainera, 2020ko ekitaldirako Aurrekontuan ez da aurreikusten mailegu-kontratatorik egiterik. Hortaz, ez da maileguei lotutako finantza-gasturik aurreikusten. Dena den, banku-komisioei dagozkien 6.500,00 euroko kredituarekin ekingo zaio 3. Kapituluari.

### **IV. Transferentzia arruntak**

Laugarren kapituluan 3.736.578,96 euroko zenbatekoa jaso da eta %2,20ko murrizketa dakar 2019 ekitaldiaren aldean. Esan behar da Hondarribia Blues Festival kontzeptuan



Hondarribiko  
Udala

2019 ekitaldirako esleitutako zenbatekoa 2020 ekitaldian Gastuen Aurrekontuko 2. kapituluan esleitu dela.

4. Kapitulu horretako zenbatekoa Diru-laguntzei buruzko Eranskinean jaso beharko da, eta egingo diren aurrekontu-aplikazioak, zenbatekoak eta erakunde onuradunak (hala dagokionean) aditzera emango dira. Gogoratu, halaber, diru-laguntzetan publizitate, gardentasun, berdintasun, objektibotasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioak bermatuko direla. Diru-laguntzak emateko prozedurari dagokionez, oro har, eta DLO-n xedatutakoekin bat etorritik, lehiakortasun-irizpidea gailenduko da, eta salbuespenak izango dira esleipen zuzenekoak nahiz izendunak.

#### **V. Kreditu Orokorra**

226.130,00 euroko zenbatekoa jaso da Kreditu Orokorrerako. Ontzat emandako aurrekontuetan aurrekusi ez ziren baina ekitaldian zehar ageri diren beharrak asetzeko ekarpenak jasotzen dira bosgarren kapituluan.

#### **VI. Inbertsioak**

Seigarren Kapitulan 771.900,00 euroko zenbatekoa jaso da, hala %62,37 handitzen da 2019 ekitaldirako hasierako kredituetan aurrekusiitakoaren aldean. Inbertsioei buruzko Eranskina gehitu beharko da, eta, bertan, egin beharreko inbertsioak nahiz finantziazio-iturriak zehazki adierazi beharko dira.

#### **VII. Kapitalaren transferentziak**

Zazpigarren Kapitulan 52.855 euroko zenbatekoa jaso da.

#### **VIII. Finantza-aktiboen aldakuntza**

Zortzigarren Kapitulan, langileei aurrerakin itzulgarriak emateko kredituak adieraziko dira, eta kasu honetan 20.0000 euroko zenbatekoa jaso da.

#### **Bosgarrena.- Aurrekontu-oreka**

Aurrekontu-oreka printzipioaren arabera, ohiko sarrerek (1-5 kap. =22.005.034,00€) nahikoak izan behar dute ohiko gastuak (1-5 kap. = 21.586.279,00 €) finantzatzeko.

#### **Seigarrena.- Aurrekontu-egonkortasuna**

Aurrekontu Orokorrak aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa bete beharko du, aurrekontu egonkortasunari eta finantziazio iraunkorrari buruzko Lege Organikoan eta



Hondarribiko  
Udala

1/2013 Foru Arauan aurreikusten diren betekizunak konplitu. Aurrekontua onartu, exekutatu, moldatu eta likidatzeko garaian egiaztatu beharko da aurrekontu egonkortasunaren printzipioa betetzen dela. Oreka-egoera edo superabita jotzen da aurrekontu egonkortzat. Aparte atxikita doa 2020ko ekitaldirako aurrekontu egonkortasunari, finantzazio iraunkorrari eta gastu-arauari buruzko helburuak betetzen direnaren ebaluazio-txostena.

### **Zazpigarrena.- Izapidetzea**

Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena eman ondoren, 15 egunez jendaurrean eduki beharko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren. Epealdi horretan, interesdunek beren esku izango dute aurrekontua aztertzea eta Udalbatzari nahi duten erreklamazioa zuzentzea. Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da aipatu epearen barruan erreklamaziorik egin ez bada; kontrako kasuan, Udalbatzak hilabete bateko epea izango du erreklamazioak ebazteko. Gogoratu, halaber, 21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoekin bat etorritik, Udalbatzak Aurrekontu Orokorrei behin betiko onespena eman behar diola aurrekontua aplikatzekoa den ekitaldiaren aurreko abenduaren 31 baino lehen.

### **ONDORIOAK:**

Goian adierazitako guztia laburbilduz, Aurrekontua orekatua da eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan xedatutakoak betetzen ditu.

**Elektronikoki sinatutako dokumentua**